

hemendik irten ere hain barne txarreko erailea! ¡Eta lotsa audiagorako aide artekoa izanere!

Gaspar.—Nehork eztakigu oraindik hori.

Raimunda.—¿Eta zein bertze izan zitekean? Orok erraiten baitu...

Engrazia.—Orok dino. Norberto izan da.

Fidela.—Norberto, ezin bertzerik izan.

Raimunda.—Milagros, alaba, irazeki argi hoiek Ama Birginari eta otoitz egin dezaigun errosario batez, ezin

baitezakegu bertzerik egin bere arimaren alde, erregutu baino.

Gaspara.—¡launak parkatu ukan dezaiola!

Engrazia.—Autorrik gabe hil ere.

Fidela.—Eta bere arima neketan egongo da. ¡lainkoak libra gaitzala!

Raimunda.—(Milagros). Eutsi errosarioa; nik ezin erreztatu ere. ¡Ama hori, ama hori! (Errosarioa erreztetan asten dira. Oiala.)

Lehen ekitaldiaren azkena.



Euskal-Mitologiaren Ikaspiderako

Barandiaran'tar Joxe Mikel

VI.—LURREKO NUMENAK. AKERBELTZ. (*)—Gorago aipatu ditugun lurpeko numenen agerkizunen artean badira izen bat eta irudi bat eginbide ta sinisbide ez gutxi ta garrantzitsuenak ingurubildu ditutenak. Akerr'en-gaz ari gera. (26)

Numen askoekiko ezaugarriez landa, esaterako lurpe-eremuetan bizi, beste guzien buru izan, ekaitzak sortu t.a., AKERR'ek baditu osakuntza-almen bereziak baita eragin onurakor bat ere aren babes eta zaizean ezartzen dituten abereen gain; eragin ori akerr biziaren irudipean betetzen du.

Etxe askotan ukulluan azten dute akerr bat abereak gaizotu ez ditzeten. Akerr onek beltza bear du, Akerrbeltz, alegia.

XVI ta XVII garren mendeetan ain ots-andia egin zun euskal aztikeriak, lurpeko numen zahar onen irudia geienbat nabarmendu zun. Euskal-mitologi barrutian irai-zeko gertakizun bat baizik etzitekean nunbait, errialde guzietan garai artan barreiatuta zebiltzin sorgin-ipuiez puztu ta antua. Ipuioek are bizikiago zirakiten orduko iakintsu, inkisitore, auzi-iaunen buruetan eta fede-auzietan. Sara ta Zugarramurdiko baserritar xaloenetan baino. Ala ere maiz aipatzen dira Akerrbeltz, eta sorgin-biltzarretan nagusi bezela agertzen zan Akelarre.

Akelarren iauresten zuten Akerrbeltz (ala zan otsa beintzat) astelen, asteazken eta ostiraletan an biltzen ziran sorgin-eme ta arrek. Dantzan egiten zuten; dirua, arriau-tzak eta ogia akerrari eskeintzen zien. Auzi-agirietan egoz-ten dizkien eginkizun eta siniskeri aunitzetatik, kristau-erlisoaren aurkako ixilpeko igikun edo mugimendu bat zala uste ditzekete, baita garai artan, Euskalerrian onartua zan giza-legearen aurkakoa ere.

Sorgin-batzarrak egin oi zituten zenbait toki aipatzen ditute: Zugarramurdiko Akelarre, Larrune, Jaizkibel, Irantz (Oizartzun), Pullegi, Mairubaratza (Ameztoi'ko leen-baratz edo cromlech), Mandabiitta (Ataun), Mañariko

Akelarre, Garaigorta (Orozko), Petralanda (Dima), Eper-landa (Muxika) Abadelaueta (Etxaguen), Urkiza (Peña-cerrada) eta abar.

Zugarramurdiko Akelarre, Akelarre-lezea deritzan leize-agoaren aurrekaldean dagon zelaitxo bat da. Uste danez, toki artan eta leize artan biltzen omen ziran antxi-ña, sorgiñak oro. Leize-sarreran, lurretik zertxobait gora, leio baten antzeko zulo bat arkitzen da. Dioenaz, dea-bruaten alxia omen zan, eta an atosten (artzen) omen zitun sorgiñak akerr irudipean.

Eguzki-aldeetik badu beste sarrera bat zabalagoa, sor-giñen-lezea deritzaiona. Erriko agureak antolatuta, zeri-moni iator bat egiten dute emen erri-pestaburuetako lau-garren egunez (Andre Mari lasokundekoz). Ortarako, agu-reetako bik, ahari bat edo bi erosten ditute eta aipatu egunean, goizetik, leize barnean iltzen ditute, eta an bertan pizten duten sutzarrean gerren batean erretzen ditute. Erri-ko agureak, eguerdian, arpean biltzen dira, aragi errea, ogi ta ardoarekin iateko. Bakoitzari dagokiona ordaintzen dute. Ondoren, eskuetatik edo zapi-bitartez elkarri eutsika lerro luze bat egiñaz, leizetik ateratzen dira. Apaiz-etxea-ren aitzinera eldu-ala, dantzan egiten dute, gero, Soka-dantza erriko enparantzian.

Abereen zaindari ta sorgiñen buru bezela egertzen zai-gun Akerrbeltz numena, baliteke kristau-aroa baino lena-goko pirenetar numen Ahersbelste'ren senide izatea. Saca-ze'k "Inscriptions Antiques des Pyrénées" (Toulouse 1902) deritzan liburuan, 432'garren orialdean au dio nu-men ortaz: "D'après un linguiste, Ahersbelste signifiait bouc dans son radical, et noir dans sa terminaison".

VII.—LURREKO NUMENAK. ERENSUGE.—Herensuge izenarekin deitzen diote Zubero-garaian, suge itxuradun lurpeko beste numen bati; noiztanka bere zu-lotik ateratzen omen da, garrez inguraturik ortzea igaro-teko. Ezaugarriok, gorago aipatu dugun Sugaar'en ideko egiten dute numen au. Beraz, Azkoitian Maju deritzaion Mariren senartzazkoarekin berdiña da, baita, laun Zuria

(*) Ikus "Euzko-Gogoa" 1954'ko 9-10 eta 11-12'gn. zenbakiak.

(26) "Euzko-Folklore", 2'gn. *nilla, 6 z.

Bizkaiko lenengo launaren aita zan XIV'garren mendeko "Culebro" edo Deabruarekin ere.

Herensugek ordea, dagozkion elezar-barrutian nunitiko tema berriak bildu ditu. Euskalerriko zenbait arpetan bizi zan, izugarritzko ipui-suge bat omen zan. Urrengo izenok ditu: *Erensuge* (Sara ta Zugarramurdi), *Herensuge* (Ezpeleta), *Errensuge* (Kamun), *Hensuge* (Liginagan), *Herainsuge* (Ezpeletan), *Edensuga* (Saran), *Edeinsuge* (Donesteben), *Edaansuge* (Uhart-Mixen), *Egansuge* (Errenterin), *Igensuge* (Zaldibin), *Iraunsuge* (Ataunen), *Sierpia* (Lekeitio ta Zubirin), *Dragoi* (Arrasaten), *Ersuge* (Otxandioko eskuidaztian) eta *Lerensuge* (Esp.). Aren egoitza aipatuena urrengoak dira: *Azalegiko-leizea* (Ahuski-Mendin), San Mikel Aralarko arzu-loa, *Baltzolakoa* (Dima), Orduñako Arkaitza eta *Kristoren-zelaixa* (Montekristo) Arrasaten. (27)

Erri batzuetan uste dutenez, *Herensugek* zazpi buru ditu, beste batzuetan diñoenez, bakar bat.

Zuberoa'ko Alzai'n darasatenez "lehen Azalegi"ko karbian bizi zen Hensugia. Atsarekin biltzen zutian mendietako abereak eta iaten. Alzai-Zaroko kuntearen semiak, zitala eman zion. Herensuge sutan iarri zan eta itsasora egaldatu garrez inguraturik, igarobidean oianetako pagodadar gallanak isatsarekin moztuz".

Ezpeletan diñoenez, suge au, zazpigarren burua sortzen zaionean, garretan iartzen omen da eta Itsasgorrietara egaldatzen omen, etzaltera alegia, an murgiltzeko. Aizea barna dioanean izugarritzko otsa ateratzen omen du.

Aralarko leize-zuloan, Kristoren-zelaixa eta Orduñakoetan bezela, giza-aragiz alartzen omen zan. Arala'en Mikel Doneak il omen zun, Kristoren zelaixan Arrasateko norbaitek, eta Orduñako Arkaitzean aingeru batek.

Elezarretan bildutako gai auk, idazle zenbaitek apaiñagotu ta zabalagotu ditute. Agustin Txaho'k adibidez "Le serpent du Valdextre" (Biarritz entre Les Pyrénées et l'Océan, 176 or. Bayona), eta Juan E. Delmas'ek bere "Guía histórico-descriptiva del viajero en el Señorío de Vizcaya"n (Bilbao, 1864).

VIII.—EGUZKI-NUMENA (28).—Eguzkiak baditu euskeraz zenbait izen: *eguzki* Tolosan; *iguzki*, *iuzki* Saran; *eguzku*, Erronkarin; *ekhi*, Liginagan; *iki*, Bardosen; *euzki*, Bizkaiko erririk geienetan.

Ataunen *euzki* deritza eguzkiaren argiari eta *euzkibegi* izarrari. Berastegin "Jainkoaren-begia" deritza.

Santa Clara ere erizten die erri batzuetan. Ondarruako bertsu ezagunaren gisara: "Zeu zara Santa Clara, euskeraz argia".

Etzatera dioanean, agur esaten diote toki zenbaitetan. Bergara aldean, *Eguzki amandrea badoia bere amangana*, esan oi dute, egunezko izarra lurraren galtzarrera dioala adierazteko. Beraz, eguzkia, lurraren alabatza daukate.

Mañariko inguruetan *Andre Mari* dala diote eguzkia, ots, Amabirjiña. Lenago ordea, Andre Mari deituran, inguru aietan lurra izentatzen zuten agian, *Mari numena*, oraindik Gipuzkoako ta Naparroako erri batzuetan gertatzen dan lez.

Amandre eguzkiari, bedeinkatu, santu izenondoak ezartzen dizkie: *Eguzki santu bedeinkatua*, zoaz zeure *amagana*, esaten die Errigoitin sarkaldetik ostentzen danean.

Berezko zenbait almenez gairi, eguzkiak badu beste

(27) José Miguel de Barandiaran, "Elezar (Euskal-mitologiako atalak). Herensuge". (Eusko-Jakintza'n, IV idaztia, 259 orrioldean, Sara, 1950).

(28) J. M. Barandiaran, "El Hombre Primitivo en el País Vasco", 62/85 orriolde.

bat, gauzez lurgainean dabilzan iratxo kaltegarriak bere argiz aizatzeak. Sorgin mota zenbait, balin eguzkiaren argiak euren lanbide ezaugarriez erantzi gabe ukitzen baditu, zurrin gelditzen dira. Lamin batzuk ere, gizonengan dauzkaten indar eta almenak galtzen ditute, eguzki-erraiñuak ikutu-ala.

Lamin batek Mondarraingo leize-aoaren aitzinean urrezko orrazia utzi zun. Artzai batek artu ta eraman zun. Lamiña atzetik zioakion maldaz bera, bere orrazia eskatuz; esku-eskuaz zedukan ia, osertzean sortzen ari zan eguzkiaren leen-izpiak artzaiaren iantzia ikutu zunean. Orduan lamiñak ari: *Eskerrak emaitzok luzkiari*, eta arpera aldegin zun.

Uda ta Negu-burukoak.—*Siniskizun eta rituak*.—Euskal-asmoen barrutian eguzkiak daukan gurentasuna bide dala, ez da arrigarri indoeuroparren arteko eguzki-mitologiari dagozkion siniskizun eta aunitz oitura, eguzkiari buruzko euskaldunen uste ta itzetara ere aldatu balin badira.

Izan ere, udaburuko iai batzu eguzkiaren benetako kultu edo iaurespidearen agerkizunak dituzute. Donibane goizean eguzkia dantzan ieikitzen dala diño; goiz artako bustialdi ta garbiketak onak omen dira urte osoan eritzeke irauteko; elorritxuri, lizar abar, ira-loratua t.a. leio ta ateetan ezarri ezker, tximistarekiko babesgarriak ziurrenak omen, baita Donibanez atarian irautzen dituten belar eta loreak ere. Donibanez bildu lorak tisanan artu ezker, ezin obeak omen zenbait eritasun sendatzeko, eta abar. Oitura oien taldekoa da Donibane bezpera gauzez etxe-aurrean eta bidegurutzetan suak pizteko ekandua ere; aipatu suaren gainetik iauzi egitekoa, azaleko eritasunik ez ukaiteko; senide guziak batuta suaren inguruan —erloiu-orratzen ariora ibiliz— otoitzak esateko oitura; su aietan piztutako belar pilloak arloetara eramatekoa, iratxoak aizatze eta uztak izurri ta erietatik gordetzeko; Donibane-arbola enparantza erdian landatzeko ekandua, iabeak iñola ere eskatu ezin dezakena naiz ta aren gogoaren kontra lapurtua edo artua izan; Donibaneren ermita batzuetara ioaten diranek izkaroz (erromeruz) ta lili-pitxiz buruak inguratzeko; aritz-enborreko akaletik, etena dutenak —sendatu ditezen— igarotzeko ta abar.

Neguburuari beste ritu batzu dagozkie, oraindik Euskalerrian bizi diranak, moteltxe badare. Orietakoak dira urte-zaharreko suak; "gabonzuzia" edo supisguan eguerriaroan pizturik dirauen subilla; aipatu subillaren gainetik igaroaziz etxeako abereak garbitzeko; sendi-buruak gabonogia onesteko eta Gabonzarrez, amabiak iota, aurreneko euriak biltzeko.

Oboak, suastikak, hardu-lilia eta beste ikur batzu.—Euskalerriko arri-lanetan maiz agertzen dira eguzkia irudi diruditen ikur zenbait, eguzkiaren kultutik sortuak agian; ikur oriek obo bakarrak, erdibaten inguruko obo askoak, lerro zuzen eta kakotuzko gupilla, bosertzeko edo pentalfa, suastikak, arrautz-iduriko ikurrak, larrosandiak e.a. dituzute.

Aipatu arri-lanetatik zaharrenak erromarren garai-koak dira. Alakoak dituzute Urbina'ko il-arriak, arri onek lerro-kakotuzko gupil bat du iraririk. Kanpetzu ta Gazteiz'ko Institutukoak larrosaundidunak dira; Iruñako Komptos Kamaran dagoen tetraskeloa eta Santakara'ko artitza, larrosandidunak, eta abar.

Naizta edesti-garaian aipatu ikurrak apaingarritzat, soilki, erabili izan, noiztanka eguzkiaren iruditza ere erabili ditute gaur egunean ere. Ezin gentzake bestela ulertu ere, gupil, obo, larrosandi irudiok, t.a., illargiarenakin ageri diranean, edo arekin bikotean, ala nola erdi-mendeko arri-lanetan eta oraingoetan ere.

Ezpai gabe, ertilariek, eguzkia idurikatu nai izan zuten, noski, Laburdi, Zuberoa ta Benaparroako illarrietan oboak irarri zitutenean. Irudi auek, sarri agi oi danez, illargiarekin bikotean ageri diranean, eguzkiari dagokion tokian daude, izar biok argi idurikatuta ikusten ditugun arri-lanetan bezelatsu. Endaiaiko arrizko gurutzean, esaterako. Arri-lan guzi auek XV, XVI eta XVII garren mendekoak dira.

Euskalerriko beste alderdietan ere, irudi berdiñak ageri dira illarri eta obietan. Argiñetako (Elorrio) illarrietan ere, eguzki gurrillak ikus ditezke. Aezkoan, etxe baten ate-giltzarrian, bost-ertzeko izar bat eta illargi erdi bat aldamenka ageri dira: azpian 1561 irakur ditezke.

Berriagoak dira ateburu, ta leio-buru ta azpietan, baita sukaldeetako labetxoetan irarrita ageri diran irudiak. Iholdi-aldean usu arki ditezkenak. XVII ta XVIII garrenekoak dira. Irudi oiek, batzutan, elizetako sakramentu deunaren erakustokiarenakin ordezkutzen ditute, euskeraz *iduzki-saindu*.

Euskal kulturaren barrutian edota euskal ustebide iatorrean, zein ote dan galde ditezke, eguzki ikur orren aldin eta zentzu egiña.

Maiz, irudi auek apaingarritzat soil erabiltzen ditute: orixe da, izan ere, sinbola edo ikur guzien zoria. Bañan noiztanka "iduzki-saindua" renakin aipatu irudiok ordezkatzeko oiturak, euskal-ertiko eguzkiaren ikur edo sinbolai zentzu guren edo done bat ematera garamazki.

Ezaugarri orien zentzu doia ezagutzeko orde, gaur ere euskal baserritarrek etxeko atarian ipintzen ditun eguzki ikurren bereiztasuna ezagutu bear dugu. Kardulili (Carlina acaulis) ari gera. Aunitz izen ditu, aien artean *eguzki-lora*, eguzkiaren lorea alegia, eta *aguzki-ezaugarritzat* askok atean ezarten dute, *iguzki-sainduaren*, larrosandiaren edo eguzki-gurpillaren irudiari berez dagokion tokian ezarri ere. Gaurko euskaldunak, gainera, eguzkiaren ezaugarri edo ikurtzat artzen duten ezkerro, eguzkiari dagokion alegizko edo mitu-eginbearrak bete bear ditu nunt bait ere. Uste danez, eguzkiak iratxoak eta arima kaltegarriak aienatzen ditu, baita sorgiñak eta lamin-mota batzuek: karduliliari ere almen edo indar berberok egozten dizkie. Orregatik atean iltzatzen dute, iratxo kaltegiñak, sorgiñak, aidekoak, ekaitz eta tximistaren numenak sar ez ditezke.

Ialki ditugunetatik ageri da beraz, eguzki-ikurraren izate donea eta zentzua ere, kardulili-, larrosandikakogurutze ta abarren irudipean.

Eguzki-mitologitiko ustekizunetan dute sorrera nunt bait, gure egunetaraño eldu diran beste oitura auek ere: etxeak sortaldera begira egitekoa; oitura onen aztarnak oraindik ere arki ditezke Sara, Ataun eta beste tokitan. Artzai-txabolak ere eraberean egitekoa, ots, E-W, burua sartzaldera eta oiñak sorkaldera. Eneolitosko trikuarrietan ere, oitura berbera arkitzen dugu, beste errietako siniskizun eta eguzki-mituen arabera.

—Datorren banakoan azkena.

★ ★ ★

NOIZKO-NONGOAK

Ormaiztegui'tar Nikola

1.—NOIZKOA

Aristotel'ek euskeraz *denbora* orrela esan zezaken, gure erriak derabilanez: "Etorriko dala esan du; baiña noizkorik ez".

Alde askotara diño euskerak aldi edo noiz aldi ori. S. Agustiñ'ek bere Aitorkizunetako amaikagarren Iardundean, XIV garren atalean, noizko ori goienik-barren aztertu digu. Bai iakinkizunari dagokiona, bai euskal-izkuntzari dagokiona, an arkituko duzu, irakurle, nik itzulitakoan.

BETA. Auxe da nik neretzat nai nuken noizkoa. Onek ez diño aldiaren aldarterik, ez tartearen mugarik, ez irautearen nekerik (neketan iraun edo egari bear danean beñipein). Asti ere esan oi diote zenbait tokitan, baiñan *arte*'tik letorke, ta muga diño, betak ez-bezala. Geldi dagon noizkoa esan ditezke *beta* ori, beti danetik urbillago antzera. Besterantzeko noizaldiak ba-doaz usu, oarkabean atzeman oi gaitute; baiña betak egona ta patxara diño, noiz-geldian atsedenez.

NOIZALDIA. Len-geroak bat-banatzat asmatzen dugu, oraiñ'a ezin atzeman dugula. Lengero oiek gorpuzkien noizaldia dagite: oraiñ'ak animarena, Aristotel'en ariora; betierak, aldiz, lainkoaren noizkoa dagi.

ORAIN'a. Diraun animaren noizkoa esan zaio, ta zirkiñez edo mugimentuz ez ditezke bat-banatu. Oraiñ'onek ez du zirkiñik, eta ba'lu, zirkiñaren *or-emen*'ak lituke; beraz *len-geroak*, eta neurgai lizake. Une bat, obeki esan (guneak ere tartea baitiño) tini bat, puntu bat da

gure animaren oraiñ au. Esana baita "tarteaz ez dala zatitu ez ditekene tinrik, pitsik edo punturik", orobat esan ditezke aldian ere ez dala zatitu ez ditekene pitsik. Oraiña ez ditekene zati; zati ba'litike, an lituke *or-emen*'ak eta *len-geroak*; beraz, animaren noizkoa da; animarekin bat dala esan ditekene, ots, berarekin batean bera bezain zati-eziña.

BAT ETA BETE. Bat esaten dunak bestea ere asmatzen du, ots, bat bestegandik *bakandu* ditekela. Ori gutartean. Baiña lainkoagan, bat ori bete biurtzen da. Guk ere esan oi dugu, neurgai batean neurri-ala adieraziz, oinbete, gizabete, urtebete. Lainkoa neurteziña baita, biritil izandun. Berari dagokio betetasun osoa.

BETI. Betiera zer da? — "Bizi mugabagea batean oro ta betean edukitzea" Onela Boeti'k. Lainkoa da mugabage ori, ez baitu bazterrik an ez emen. Beti dalarik bat da, bakarra; betean da, bestek gu ase ta bete ezin gaitzakena. Bein eta beti ta batean, iraute betean, atergabe. Ez dezagun asma betiera gure noizkoaren gisan —gu ta noizkoa bana baikera—, ots, betiera ta lainkoa ere bana dirala. Noizkoa aldi danez, guk asmatua dugu izanean oiñarri zerbait dula. Aldia, gure gorputzaren eta gorpuzki edo mokorki diranen aldarrea edo aldizka irautea da; betiera, berriz, egoera da, lainkoarena —egoera ta lainkoa ez baitira bana—; bizi da, ez geldiegona, ez alperregona; egonean iardun eta iarduncan egon, aldarterik bage, gure idurimenak asmatzen ez dun eran, eta gure adimenak urrundik sumatzen dun eran.



Euskal-Mitologiaren Ikaspiderako

Barandiaran' dar Joxe Mikel

IX.—ILLARGIA EUSKO-MITOLOGIAN (29).—
Illargiaren izenak: *illargi*, *iratargi*, *icetargi*, *idetargi*, *illazki*, *argizai*, *goiko*, tokialde bakoitzaren aiora.

Illargi izenak (illen argi omen zenbaiten ustez), zenduen arimei argi egiten diolazko ustekizunetik du bere sorrera. Argizagiak bai, "iarleku"an zenduen arimei argi egiten diela sinisten dute, eta *argizari* da, ain zuzen, illargiaren izenetatik bat. Bestalde, baliteke *icetargi*, *idetargi* izenek, Bizkaiko elezar batzutan ageri diran *ireltxu*, *icitxu*, *iruztargi* eta *idittu*-renekin, —gau numenak guziak—, zer ikusirik ukaitea. Izkuntz ikerpen aukerordea, ez digute eskubiderik ematen gure mitologi-barrutirako ondoren ziurrik ateratzeko.

Illargiak zer ikusirik baduela ildakoen arimen etorkizunari buruz, ilgoran iltzen diranek zori-obeak ukanen dutelazko ustekizunak sendotzen du. Zenduen arimak izendatzeko erabiltzen dan *argi* itzak ordea, ez da ageri illargiarenakin zer ikusirik ote dunik.

Erri-abestietatik ageri danez, illargia emea da. Eguzkiari bezela, amandre deitzen die. Sorkaldeko mendietatik agertzen danean Ataun aldean urrengo au esaten die: *Illargi amandre, zeruan zer berri?* Inoiz, lurra dula ama ere entzun dugu (Mañarin).

Gurentasunik ere badu, bada toki askotan, lainkoaren aurpegia bailitzan aurrai erakusten die, eta beste batzutan "Agur erregina" edo salbe bat errezatzen die agertzen daneko.

Illargi-gora-berak, almen bereziak ditute landare ta abereen gain, beste lurralde askotan bezela.

Arra omen, ilgoran iaioitzen dan aberea, emea, ilberan sortutakoa.

Ilgoran moztutako zuaitzaren zura (izpera garaian ala obe) erretzeko egokia omen, ilberan moztutakoarenak, berriz, ez omen du bestearen bero-indarrik.

Garia, artoa eta lusagarrak ugari biltzeko, ilberan erein bear dira. Ilgoran erein ezkerro, landara geiago azten omen da, ale txikiago ta urriagoa ematen omen du ordea. Ala ere kalte au gaingitu liteke izpera (maria-bera) garaian erein ezkerro.

Etxegintzarako naiz egurrezko lantailuak egiteko zuaitzak ilberan moztu bear dira.

Asteazken eta ostiraletan moztu zugaitzen zura, ilberan moztutakoarena bezelakoa gertatzen omen da, bañan aipatu egunok, beste zeretako, ilgoraren indarra dute.

Sorgin ta *intxixuak*, ostiraletan bereziki biltzen dira. Ostiralez, illargitan eta bide-gurutzetan erre bear dira sorginen azti-tresnak.

(29) J. M. de Barandiaran, *El Hombre primitivo en el País Vasco*, 85 orr.

Beraz, ostirala (asteazkena ere bai agian) illargiari eskeiñitako eguna da. Egun ortan zenbait eginkizun betetzea ez da on, ezta iaiegunetan ere. Adibidez, lan aundiren bat asi, artaldeak mendiratu, ezti-orriziak soatzi, morroi edo neskame berriak etxean artu.

X.—"URCIA", ORTZI, OSTRIA EDOTA ORTZI-IAINKOTUA. (30) —Orainarte laburki azaldu ditugun eta euskal-mitologiaren zatiak diran siniskizun, izen, mituen samaldan, naizta iatorriari atxikita egon, beste errialdetan ere idekoak dituten zenbait gai ageri dira erlisio askotako ustekizun bereiziei dagozkienak, indoeuropearrenei batik bat.

Badira gai batzu, ordea, urbil urbilletik indoeuropar mitologiari datxizkionak. *Ortzi* iainkoari, ots, zerusapai iainkotuari dagozkionak batez ere.

Kompostela'ko XII'garren mendeko kodizean datzan Aymeric Picaud'en bide-idaztiaren arauz, aldi artan, Euskaldunek "Urci" itza zerabilten iainkoa adierazteko. Egun erabili ez arren, aipatu itzaren aztarrenak beste zenbait itzetan arkitu ditezke: *ostria*, zerugaña Ataunen, *iurtz*, *ortz* edo *ost*, zeru-sapaia adierazteko izen antolaketan erabiltzen diranak. Orietakoak dituzute geroago aipatuko ditugun tximist, oñeztu eta trumoiaren izenak, eta iaingarri bezin ernegarri diran urrengo aukerak: *uztadar*, *uztargi* (Oiertzun), *Ustraku* (Dima), *Ostrigu* (Abadiano) eta *ostiliha* (Ataun) erromako-zubia adierazteko; *orzargi* eta *orgaizki* (zeruko argia), *orzondo* (egun-urratzea), *ozkorri* (eguantza), *ostebi* (zeruko euria), *oskarbi* (zeru garbi), *ospel* (zeru illun) azaltzeko, eta abar.

Dirudinez, euskaldunek izen bakarra erabili baldin bazuten iainkoa ta Ortzea edo zerua izentatzeko, azken au iainkotzat zeukatelako zan nonbait.

Zerua iainko biurtze au, indoeuroparren erlisioko leen-ustekizunei dagokio. Naizta *Urcia* eta gaurko *Ortzi* (trumoi) bat izan, askotxok nai luketenez, ezlitzateke indoeuropar eta euskaldunen ustekizunen arteko lokarria etengo, ariandarren arteko *Dyeus* (zerua) ere, trumoi eta tximistaren numenekin idekotu baitzan.

Kidetasun au, indoeuroparren artean bezelatsu, euskaldunen artean ere gertatu zan, aiek bezela, zeruko-argiari (ariandar iainkoa), asteke egun bat, *osteguna* alegia, eskeiñi ziotenean: *orzegun*, *ostegun* zeruko eguna, eta *eguen* (zeruko argi edo eguzkiarena), indoeuroparretan egun orri dagozkion izenak oinarriztat artuta antolatuak dirudite.

Beraz, *Ortz*, *Ost*, *Ortzi*, *Urtzi* edo *Egu* zeritzan iainko bat, zerua naiz zeruko argiaren nortasuna, euskaldunak

(30) J. M. de Barandiaran, *Ibid.* 79-82 eta 86-89 orrialdetan.

jauretsi zuten indoeuropar kulturarekin artuemanean bizi ziran aldameneko errien eragitez.

Urtzi, Ortz edo Ost zero-iainko zarrak, ekaitzak eta sortzen zitun trumoiaren eta oñeztuaren euskerazko itzetatik ageri danek. Orre trumoiaren euskal-izenok: osti, ostots (Ost'en zarata), ostroi, ortots, ortzantz (Ortz'en durundia), ortzi, ortziri, iortziri, iurtziri, ihurtziri, yurtziri, yurtzuri, ihusturi, yusturi, yuzturi, yostoi, iñusteri, iñusturi, ihugi.

Ona emen, tximist eta oñeztuarenak: gorago aipatu trumoiaren berditsiak dira zenbait, besteak, aldiz, lenengo itz-zatia berdiña dute soilik: yusturi, iñusturi, iñastura, iñestura, iñizitu, oñestu (oñeztu), oñetsitu, oñestua, oñestitu, oñeztarri (Tximista: oñeztu ta arri), oñestarrri, oñaztar, oñazkar, oñaztura, oñaztargi (Oñeztu), ozme (tximista), ozpiñarri (ozpin trumoi eta arri tximista), tximist, tximistarri (tximista), ihugi (tximista).

Tximistaren zenbait izen, ozme, ozpinarri, oñeztarri ta tximistarri, Thor'en mailuaren indoeuropear mituari eta Jupiter'en geizienai dagozkie, Euskalerrietan txit ezaguna. Arri berezi bat dala uste dute tximista (neolitosko aizkora edo suarrizko aiztoa) lurrera erortzerakoan zazpi estadi lur barnean sartzen edo ondatzen dana. Urte bakoitzeko estadi bat igotzen omen da, zazpi urteren buruan lur-azalean agertzeko. Arrezkero, iasoko lukenaren etxea tximistatik babesteko indar berezi bat omen dauka.

Beste toki batzuetan, ordea, tximista borontzeko zerbait dala uste dute, are bestetzueta, burnizkoa.

Etxea tximistatik zaitzeko, ekaitzaldietan aizkora sorbatza gora begira atarian ipintzeko oraingo oitura, antxiñatean arrizkosai zieten itzalaren ondorena duzute, eta izatez goitiko almenen iabe ziralazkoaren ustekizunarena. Galtzairuzkoak baiño len, borontzeko aizkorak bete zituten noski, betebearrok. Zabalaiz (Aizkorri) 'ko lezearen sarreran, borontze garaiko aizkora bat arkitu zuten lurrean sartuta, sorbatza gora begira.

XI.—AZKENA.—Mituetan agertzen zaizkigun lagun edo notinak, gizonaren logika bideari datxizkie, nolabait mundua ta ango gertariak azaltzeko.

Pirene'ko erri zarraren irudi-iauregia eraiki nai luke-narentzat, euskal-mituak arri bezela gertatu ditezke.

Idaz-saio labur ontan, euskal mitologiko ustekizun zarretan erne gaiak baizik ez ditugu bildu. Ez, ordea, guziak. Aztertu gabe utzi ditugu, Basaiaun, Maide, Intxixu, Ireltxu, Odei eta Inguma-ren saldoetakoak, aipatu sailletako gairik geienak ara ta ona zalantzan baitabiltz irudi aien artean, edota edasi ditugunen tematikan naasita. Gaur, auek ere, barreiatu eta puzkaturik dabilta, elkarren artean ikustekorik ezpailuten, aspaldi urratutako sistema baten atalak bailiran. Orregatik ain zuzen, zail ger-

tatzen da mitologi-sistema tinko ta gotor bat berreraikitzea.

Goragoko atalburuetan iaso ditugun ekaiak ala ere, euskal tradizioan sendetsitakoak dira eta Euskalerrian edapen audiena iritxi dutenak gainera.

Gaurko euskalduna gai eta nor auetaz ari danean, Kristautasuna sartuz gero suntsitu mundu batetzaz bezala ari da. Azken mendeetako ibai azkarrek sakonki ezin naasi izan dituten urgune batzuetan ordea, aski tinko ditauite antxiñateko aztarnak.

Zamakola'n (Dima) antxiñateko iratxoak kristau-ermitetako kanpaiak aizatu zitutela diñoe. Sara'ko nere lankideek berriz, mundu zaharra menderatzen zuten lurpeko iratxoak, elizak eta ermitak eraiki ziranean suntsitu ziralaz ziñoen.

Kristautasunaren sarrera eta onen ondorengo ientil-aroko mituen suntsipena, Euskalerrian zabal dabillen elezar baten gun ta mami gertatu da. Aurtzaroan maiz entzun nun Ataungo ipui zarrak diñonez; ientillak Argaintxabaletako munoan, Aralar-mendin, iostatzen ari ziran, sortaldetik odei argi bat zetorkiela ikusi zutenean. Zekustenakin beldurtuta, agure iakintzu bati otsegin eta toki artara eramane zuten odei miresgarri hura ikusi eta aren esanaia azaldu zezaien. Eta agureak esan zien: "Kixmi iaio da eta gure endarenak egin du: aldameneko amildegitik iaurti nazazute". Kixmi, agurearen izkeran tximiñua zan ientillen arteko Kistoren gaitzizena. Orduan, odoiak atzetik zerrakiela, sortaldetuntz lasterka abiatu ziran ientillak eta Arras-tarango zelaixora iritxi ziranean, bat batean, arri aundi baten azpian ondatu ziran; arrezkero arri au Jentill-arri deritza. Urte asko geroago Aranzadi ta Eguren iaunekin ikertu nun trikuarri edo dolmena da. Orre nola amaitu zan ientil-aroa (31).

Astiro baizik etzan kristautasuna gure artean sartu eta etzitun zearo erauzi al izan antxiñako erlisioaren aztarnak. Maiz, era zaharrak onartu zitun gogo berri batez iazteko, goragoko ataletan ikusi al izan dugunez. Ala ere, gogoz artu zuten euskaldunek erlisio berria, eta mendeak mende, erlisio ortan zintzoki iraun dute aren aginduak biotzonez betetzen, gaurdano alegia. Oraintxe asi dira oikonomi, gizarte ta politika bizi-modu berrien eragineria, irudi berriz antolatu barrutietan sartzen eta aeiei darraizkien bizitzarekiko uste berriak onartzen, kristau erlisioaren gainean eraikitako antxiñako bizimodua baztertuz.

Andima'k itzulita.

Guatemala'n Azillak 6-1954.

A M A I A

(31) Aranzadi, Barandiaran, Eguren, *Exploraciones de nueve dolmenes de Aralar guipuzcoano* (San Sebastián, 1919).

Platon Eta Parmenide-ta

Zaitegi eta Plazaola'tar Iokin

Etengabe aldatuaz doazen zer guziak iduria dute ta ez izana, ta sorgin —zurrumbillo ortan aldakaitzaren oiala gora iasorik sor ta lor iraun zun Platon'ek. Asmabide orren tontorrik garaiena ideakiko bere aburuan ageri da. Betiko idea aldakaitz oriek, gogozkoak dira, gure bururakizunen egitamu bete, eta gure atinaren benetako kizun gerta oi dira. Onbera utsa ez da lekutzen, adibidez. Erabateko ederra beti berdin da, len, orain ta gero. Emengo

beste edozer on, eder, edo zuzen, idea orien iduri utsak dira, ta idea orien kutsua artzen duten ezker, gertakizun utsen ugolde oparo ta ondatzaille onen uberka zabalean, muger aldakaitz ta gogorra ateman bear dugu, betiko idea aiek, arean. Sutarriotan orubeak atera ta gure iakintzaren iauregi ederra eraiki al izango dugu. Oraingo alde ta aldi ta beste saietsetatik berez-bere zer guziok betikoaren argitan edo *sub specie aeternitatis* ezagutzera iotean, ustekabez